

txoritxoari mokoka

Amagoia Iban

800 aldiz marka

Western generoko 800 pelikula eman ditu ETB2k. Zorionak mota horretako edozein film arratsaldero irensteko gauza diren lagunei. Zinema generoagatik bakarrik jarraitzen ez dutenek, berriz, katez aldatzea daukate. Erraz-erraza da. Horrelaxe kontuak. Eta ETBkoen kantua? *Goazen genero bereko 800 film eman ditugula ospatzera!* Guinness errekorren bat hautsi dutela dirudi, eta bi zatitan banatutako ospakizunak antolatu dituzte. Herenegun gauean ikusi genuen Felix Linares lehendik entzunak dizkiogun



EGUNKARIA

How the west was won filma emanez hasi zituen ETB2k 800 western eskaini izanaren ospakizunak.

komentarioak egiten, lehendabiziko marka-hauste festan. Marka baita bazkalosteko 800 tituluena. Guk ez ditugu denak ikusi, egia esan, baina lan eder batzuk eman dituzte. Kaskar mordoa ere bai. Artxiboetako apaletan gordetako filmak berreskuratuz diru gutxi behar izan dute marka hori gainditzeko, eta, agian, hori ere ospatu egin behar. Ez dute, behintzat, film bera 800 aldiz eman. *Godzilla* pelikulari ego-kitu zaio, nonbait, marka hori hausteko tresna izateko ohorea. Izan ere, zenbat aldiz eman digute munstro horri buruzko film bera ETBren euskarazko eta gaztelaniazko kateetan? Marka da programazioa betetzeko erabiltzen den zenbait sistema ikustea. 800 aldiz marka.

LABURAEAN

Zigor kodearen erreformari buruzko eztabaida, etzi, ETB2n

Estibalitz Ruiz de Azuak aurkezten duen *Políticamente incorrecto* saioa programaziora itzuliko da astelehenean (23:15ean). Lehendabizi, PPK zigor kodean egin nahi dituen aldaketari buruzko eztabaida egongo da; hizlariak Leocadio Bueso (PP), Javier Barrero (PSE), Luis Carlos Rejon (IU), Margarita Uria (EAJ) eta Begoña Lasagabaster (EA) izango dira. Jarraian, Carmen Gurrutxaga, Teresa Toda, Carlos Elordi eta Iñaki Gonzalez kazetariak politikaren munduan ekarri dezakeen eztabaidatuko dute.

'La légende des voix' musika saioa estreinatuko dute gaur, France2 katean

Ness kantariak aurkeztutako *La légende des voix* saioa estreinatuko dute France2 katean, gaur 20:55ean. Parisko Olympia areto ezagunean dago grabatua programa, eta hainbat abeslarik hartuko dute parte: Youssou N'Dour, Daniel Lévi, Carla Bruni, Luz Casal, Andrea Bocelli eta abar.

'La botica de la abuela' saioa astelehenean itzuliko da La2ra

Gontzal Mendibilek zuzendu eta Ines Almagrok aurkeztutako *La botica de la abuela* saioa astelehenean hasiko da La2 katean (15:00etan). Almagrok dozena bat urtean egin zuen lan botika batean, eta ehunka sendabide eza-gutzen ditu. 65 programa berri eskainiko dituzte datozen asteetan, eta horietan Almagrok Pedro Luquin naturistaren laguntza izango du. Programaren errealizazioaren ardura Xabier Etxebarriak du.

ETB1. Astelehenean hasiko dira hirugarren ediziorako 'casting'-ak



ETB

lazko 'Basetxea' lehiaketako irudi bat. Aurten negu gorrian egongo dira lehiakideak, Izabako etxe batean.

'Basetxea', elurpean

Izaban egongo da basetxe berria, eta otsailean hasiko da Globomediako lehiaketa

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Aste gutxi dira Eurne Mitxeo irundarrak *Basetxea* lehiaketako bigarren edizioa irabazi zuela, eta datorren astean joango da Balira Ane lehiakide lagunarekin. ETBk programari jarraitzea ematea erabaki du, eta Globomediak astelehenean hasiko ditu 16 lehiakideak hautatzeko probak.

Nafarroako Izaba herrian egingo dute *Basetxea*-ko hirugarren edizioa, otsailean. Aurreko edizioak bezala, atariko bi epe izango ditu programak, eta finala zuzenean jokatu du.

Aurkezlea Julian Iantzi lesakarra izango da berriz ere. Baina edizio honetako ezaugarri garrantzitsuenetakoa hotza izango da. Iazko otsailean, esate baterako, 15 gradu izan ziren zero azpitik Izaba aldean.

Gainera, bordako bizilagunak elurrez inguratuta egingo dira, eta Belaguako haranean bizi diren animalietatik babestu beharko dute. Inguru horietan ibiltzen dira basurdeak, oreinak eta *Camile* hartz ezaguna.

Horrez gain, proba zailagoak gainditu beharko dituzte lehiakideak: elurretan iraupen eta mendiko eskia egingo dute, in-

guruko ibai eta erreketan *rafting*-a eta kainoi jaitsierak egingo dituzte, eta Burgiko almadietan ere ibili beharko dute.

300 lagun inguruk eman dute izena orain arte, baina oraindik *casting*-etara aurkezteko epea irekita dago. Parte hartu nahi duenak 906-291039 telefonora deitu behar du. Bestetik, *Basetxea* saioa arduradunek lau egun emango dituzte hautagaiei probak egiten; hamasei lagunetatik zortzi hasierako lehiakideak izango dira, eta beste zortzi ordezkoren taldean egongo dira.

Hirugarren *Basetxea* otsailean hasieran jarriko da martxan, eta bigarren edizioan bezala hiru lehiakide helduko dira finalera. Irabazleak bidaia eder bat eramango du.

RTVE



TVE

Alfredo Urdaci TVEko albistegietako burua.

RTVEko langileek 'Prestige'-ri buruz emandako informazioa salatu dute

Erredakzioa | DONOSTIA

RTVEko zentro arteko batzorde nagusiak *Prestige* ontziaren hondamendiaz TVEko eta RNEko albistegiek egin duten tratamendu eta eduki aukera salatu du. «Telebista eta irrati publikoko albistegiek hondamendiak sortutako eraginak ezkutatu eta gutxitu dituzte, eta horren arduradunak RNE eta TVEko zuzendariak eta albistegietako buruak dira», diote agirian. «RTVEko langileok herritarren zerbitzuan aritu nahi genuke, baina ez digute uzten. Hondamendi ekologiko bat egoteaz gain, giza tragedia bat da, eta guri gertatu den bezala kontatzea gustatuko litzazuke», gaineratu dute. Hala eta guztiz ere, TVEk eta RNEk emititutakoak kaltetuei min handiagoa sortu badie, RTVEko langileek barkamen publikoa eskatu nahi dute.

PSOeko kontseilariak, bestalde, TVEko albistegietako arduradun Alfredo Urdacik kargua uztea eskatu dute, «pluralismo informatiboa falta dela» argudiatuz.